## I ARABAKO FORU ALDUNDIA

### Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

#### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

5622

**49/2012 FORU DEKRETUA, urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileen aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuan xedatutakoari egokitzen diona.**

Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluak honako hau xedatzen du:

"1. Herri administrazio eta organo konstituzionaletako langileen aldi baterako ezintasun egoerak irauten duen bitartean jasoko duten prestazio ekonomikoari dagokionean, artikulu honetan xedatutakoa bete beharko da.

2. Herri administazioek, beren eskumenen esparruan, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorraren barruan dauden funtzionarioek eta lan kontratuko langileek aldi baterako ezintasun egoeran jasotzen dituzten prestazioak osatu ahal izango dituzte, honako mugen arabera:

1. Aldi baterako ezintasuna kontingentzia arrunten ondorioa bada, lehenengo hiru egunetan, ezintasunaren aurreko hilean jasotako ordainsarien ehuneko berrogeita hamarrera arteko lansari-osagarria onartu ahal izango zaie, gehienez ere. Laugarren egunetik hogeigarren egunera, biak barne, Gizarte Segurantzak aitortutako prestazio ekonomikoari gehitu dakikeon osagarriari dagokionean, kontuan hartu behar da, bi zenbatekoak batuta, inola ere, ezin dela gainditu ezintasuna gertatu aurreko hilean langile horiek zituen ordainsarien ehuneko hirurogeita hamabosta. Hogeita batgarren egunetik aurrera, hori barne, ezintasuna gertatu aurreko hilean jasotako ordainsarien ehuneko ehunaren baliokidea den prestazioa aitortu ahal izango da.

2. Aldi baterako ezintasuna kontingentzia profesionalen ondorioa bada, Gizarte Segurantzak aitortutako prestazioa lehenengo egunetik osatu ahal izango da, ezintasuna gertatu aurreko hilean langile horiek zituen ordainsarien ehuneko ehuneraino, gehienez ere.

5. Herri administrazioek erabaki ahal izango du, beren langileei dagokienean, salbuespen modura eta behar bezala justifikatuta, zein kasutan ezarriko den osagarria, gehienez ere, ordura arteko ordainsarien ehuneko ehuneraino heltzeko. Ondorio hauetarako, edonola ere, behar bezala justifikatutako kasutzat joko dira ospitaleratzeak eta ebakuntza kirurgikoak"

Beste alde batetik, 20/2012 Errege Lege Dekretuaren hamabosgarren xedapen iragankorrean ondokoa xedatzen da:

"Herri administrazioek hiru hilabeteko epean, errege lege dekretu hau argitaratzen denetik aurrera, 9. artikuluan jasotako aurreikuspenak, herri administrazioetako langileek, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorraren edo Itsas Langileen Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren barruan badaude, aldi baterako ezintasun egoeran jasoko dituzten prestazio ekonomikoei buruzkoak, garatu beharko dituzte. Edonola ere, epe hori betetzean, errege lege dekretu honek ondorioak izango ditu"

Azaldutakoa dela eta, nahitaezkoa da, langileek aldi baterako ezintasuneko egoeran daudenean jasoko duten prestazio ekonomi-

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

### Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

#### DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

5622

**DECRETO FORAL 49/2012, del Consejo de Diputados de 2 de octubre, que adecua el complemento de la prestación económica de Incapacidad Temporal para el personal al servicio del Instituto Foral de Bienestar Social a lo dispuesto en el Real Decreto-Ley 20/2012, de 13 de julio, de Medidas para garantizar la Estabilidad Presupuestaria y de Fomento de la Competitividad.**

El artículo 9 del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, BOE del 14 de julio, establece que:

"1. La prestación económica de la situación de incapacidad temporal del personal al servicio de las Administraciones Públicas y órganos constitucionales se regirá por lo dispuesto en este artículo.

2. Cada Administración Pública, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrá complementar las prestaciones que perciba el personal funcionario incluido en el Régimen General de Seguridad Social y el personal laboral a su servicio en las situaciones de incapacidad temporal, de acuerdo con los siguientes límites:

1.º Cuando la situación de incapacidad temporal derive de contingencias comunes, durante los tres primeros días, se podrá reconocer un complemento retributivo hasta alcanzar como máximo el cincuenta por ciento de las retribuciones que se vengan percibiendo en el mes anterior al de causarse la incapacidad. Desde el día cuarto hasta el vigésimo, ambos inclusive, el complemento que se pueda sumar a la prestación económica reconocida por la Seguridad Social deberá ser tal que, en ningún caso, sumadas ambas cantidades, se supere el setenta y cinco por ciento de las retribuciones que vinieran correspondiendo a dicho personal en el mes anterior al de causarse la incapacidad. A partir del día vigésimo primero, inclusive, podrá reconocerse una prestación equivalente al cien por cien de las retribuciones que se vinieran percibiendo en el mes anterior al de causarse la incapacidad.

2.º Cuando la situación de incapacidad temporal derive de contingencias profesionales, la prestación reconocida por la Seguridad Social podrá ser complementada, desde el primer día, hasta alcanzar como máximo el cien por cien de las retribuciones que vinieran correspondiendo a dicho personal en el mes anterior al de causarse la incapacidad.

5. Cada Administración Pública podrá determinar, respecto a su personal, los supuestos en que con carácter excepcional y debidamente justificados se pueda establecer un complemento hasta alcanzar, como máximo, el cien por cien de las retribuciones que vinieran disfrutando en cada momento. A estos efectos, se considerarán en todo caso debidamente justificados los supuestos de hospitalización e intervención quirúrgica"

Por su parte, la Disposición transitoria decimoquinta del mismo Real Decreto-ley 20/2012 dispone que:

"Las previsiones contenidas en el artículo 9 relativas a las prestaciones económicas en la situación de incapacidad temporal del personal al servicio de las Administraciones Públicas acogido al Régimen General de la Seguridad Social o al Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores del Mar serán desarrolladas por cada Administración Pública en el plazo de tres meses desde la publicación de este real decreto-ley, plazo a partir del cual surtirá efectos en todo caso"

Por lo expuesto se hace necesario regular en el ámbito del Instituto Foral de Bienestar Social el complemento de la prestación

koaren osagarria arautzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esparruan.

Era berean, eta nahasketak ekiditearren, komenigarria irizten zaio Erakundeak bere langile guztiei ordainduko dien osagarria arautzeari osagarri hori ordaintzen den beste lizentzia batzuetan, eta zehazkiago hauetan: erditzea, adopzioa edo haurra etxean hartzea, aitatasuna, haurdunaldiko arriskua eta edoskitze aldiko arriskua.

Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauak, abenduaren 18koak, bere 8. artikuluko 17. zenbakian, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Foru Zerbitzu Publikoen Kudeaketari buruzko 15/1987 Foru Arauak, urriaren 30ekoak, 9. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Aldi baterako ezintasun egoera kontingentzia arrunten ondorioa bada, hirugarren egunera arte, ordura arte hilero jaso izan diren oinarrizko ordainsarien, destino osagarriaren eta berariazko osagarriaren ehuneko berrogeita hamarreko lansari-osagarria aitortuko zaio. Laugarren egunetik hogeigarren egunera arte, biak barne, osagarri bat aitortuko zaio, Gizarte Segurantzak onartutako prestazio ekonomikoarekin batuta, ordura arte hilero jaso izan diren oinarrizko ordainsarien, destino osagarriaren eta berariazko osagarriaren ehuneko hirurogeita hamabostaren parekoa izango dena. Hogeita batgarren egunetik aurrera, hori barne, dagokion diru prestazioarekin batuta, ordura arte hilero jaso izan diren oinarrizko ordainsarien, destino osagarriaren eta berariazko osagarriaren ehuneko ehun jaso dadin beharrezko osagarria aitortuko zaio.

Esandako osagarria kalkulatzeko, ez da inoiz ere kontuan hartuko produktibitate osagarria.

Bigarrena. Ondoko kasuetan, osagarria halakoa izango da non, aldi baterako ezintasuneko prestazio ekonomikoarekin batuta, ordura arte jaso izan diren oinarrizko ordainsarien, destino osagarriaren eta berariazko osagarriaren ehuneko ehunera helduko den, betiere produktibitate osagarria kanpo utzita, aldi baterako ezintasunak irauten duen denbora guztian zehar:

a) Ospitaleratzea, aldi baterako ezintasuna hasi eta gero gertatu bada ere, baldin eta horren arrazoi berbera badu.

b) Ebakuntza kirurgikoa, aurretiko aldi baterako ezintasun aldiak barne hartuta, baldin eta haren arrazoi berbera badute.

c) Haurdunaldiak eragindako aldi baterako ezintasuna, ezintasuna haurdunaldiaren zuzeneko ondorioa dela egiaztatzen bada.

d) Langilea aldi baterako ezintasun egoera hasi aurreko hamabi hilabeteetan ez bada egon egoera horretan ezta egun batean ere, salbu eta aurreko idatz zatietan jasotzen den edozein arrazoirengatik izan bada.

e) Ehuneko 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna aitortuta daukaten funtzioarioak, egiaztatzen bada aldi baterako ezintasun prozesua ezgaitasun horren zuzeneko ondorioa dela.

Hirugarrena. Aldi baterako ezintasun egoera kontingentzia profesionalen ondorioa bada, Gizarte Segurantzak onartutako prestazioa, hark irauten duen denbora guztian, osatu egingo da ordura arte hilero jaso izan diren oinarrizko ordainsarien, berariazko osagarriaren eta destino osagarriaren ehuneko ehunera arte, betiere produktibitate osagarria kanpo utzita.

Laugarrena. Erditze, adopzio edo harrera eta aitatasun lizentzietan, baita haurdunaldiko arriskuari eta edoskitze naturalaren aldiko arriskuari dagozkien lizentzietan ere, lehenengo egunetik bertatik eta lizentziak irauten duen denbora guztian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileei beharrezko osagarria ordainduko zaie, aipatutako egoerei dagozkien prestazio ekonomikoekin baturik, ordura

económica que percibirá el personal empleado cuando se encuentre en la situación de Incapacidad Temporal.

Al mismo tiempo, y al objeto de evitar confusiones, se entiende conveniente regular el complemento que se satisfará por el Instituto a todo su personal durante otras licencias en que éste se viene abonando y, en concreto: parto, adopción o acogimiento, paternidad y riesgo durante el embarazo y riesgo durante la lactancia.

El número 17 del artículo 8 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, puesto en relación con el artículo 9 de la Norma Foral 15/1987, de 30 de octubre, sobre Gestión de Actividades Económicas y Servicios Públicos Forales descentralizados, atribuye al Consejo de Diputados la competencia para determinar y aprobar las condiciones de empleo del personal al servicio de esta Administración Foral.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero. Cuando la situación de incapacidad temporal derive de contingencias comunes, hasta el tercer día, se le reconocerá un complemento retributivo del cincuenta por ciento de las retribuciones básicas, complemento de destino y específico que se vinieran percibiendo mensualmente. Desde el día cuarto hasta el vigésimo, ambos inclusive, se reconocerá un complemento que sumado a la prestación económica reconocida por la Seguridad Social sea equivalente al setenta y cinco por ciento de las retribuciones básicas, complemento de destino y específico que vinieran percibiéndose mensualmente. A partir del día vigésimo primero, inclusive, se le reconocerá el complemento necesario para que sumado a la prestación económica correspondiente se perciba el equivalente al cien por cien de las retribuciones básicas, complemento de destino y específico que se vinieran abonando mensualmente.

A efectos del cálculo del citado complemento en ningún caso se tendrá en cuenta el complemento de productividad.

Segundo. En los siguientes supuestos el complemento será tal que sumado a la prestación económica de incapacidad temporal alcance el cien por cien de las retribuciones básicas, complemento específico y de destino, excluido en todo caso el de productividad, que se vinieran percibiendo mensualmente, durante todo el periodo de duración de la incapacidad temporal:

a) Hospitalización, incluso cuando se produzca una vez iniciada la incapacidad temporal siempre que tenga su misma causa.

b) Intervención quirúrgica, incluyendo los periodos de incapacidad temporal previos a la misma, siempre que tengan su misma causa.

c) Incapacidad temporal derivada de embarazo, cuando se acredite que es consecuencia directa del embarazo.

d) Cuando en ninguno de los días de los doce meses anteriores a la fecha de inicio de la situación de incapacidad temporal la persona afectada se haya encontrado en dicha situación, excepto que lo haya sido por cualquiera de los motivos contemplados en los apartados anteriores.

e) Personas funcionarias con discapacidad reconocida del 33 por ciento o superior cuando se acredite que el proceso de incapacidad temporal es consecuencia directa de esa discapacidad.

Tercero. Cuando la situación de incapacidad temporal derive de contingencias profesionales, la prestación reconocida por la Seguridad Social será complementada durante todo el periodo de duración de la misma, hasta el cien por cien de las retribuciones básicas, complemento específico y de destino, excluido en todo caso el de productividad, que viniera percibiendo dicho personal mensualmente.

Cuarto. Durante las licencias por parto, adopción o acogimiento y paternidad así como durante las correspondientes a riesgo durante el embarazo y riesgo durante la lactancia natural se abonará al personal al servicio del Instituto Foral de Bienestar Social desde el primer día y durante todo el periodo al que se extienda la licencia el complemento necesario para que sumado a las prestaciones económicas

arte hilero jaso izan diren oinarrizko ordainsarien, destino osagarriaren eta berariazko osagarriaren guztirako zenbatekoaren ehuneko ehunera heltzeko.

Bosgarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzaileari ahalmena ematen zaio foru dekretu honen edukia garatzeko eta zehazteko beharrezko jarraibideak eman ditzan.

Seigarrena. Xedapen honek ondorioak izango ditu 2012ko urriaren 15etik aurrera hasten diren aldi baterako ezintasun egoeretarako bakarrik.

Zazpigarrena. Dekretu hau 2012ko urriaren 15ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 2a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

correspondientes a dichas situaciones se alcance el 100 por cien de la totalidad de las retribuciones básicas, complemento de destino y específico que se vinieran percibiendo mensualmente.

Quinto. Se autoriza a la Directora-Gerente del Instituto Foral de Bienestar Social a dictar las instrucciones necesarias para el desarrollo y concreción del contenido de este Decreto.

Sexto. La presente disposición surtirá efectos únicamente respecto de las situaciones de incapacidad temporal que se inicien a partir del día 15 de octubre de 2012.

Séptimo. Este Decreto entrará en vigor el día 15 de octubre de 2012.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2012.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputada de Servicios Sociales, MARTA ALAÑA ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

5584

**492/2012 ERABAKIA, urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da hitzarmena izenpetzea, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketaren ardura duen erakundearen bidez, Elgea Mendizerrako Urkidetzaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean kobratzeko.**

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 8. artikuluko lehen paragrafoan xedatzen duenez, udal erakundeak eta foru aldundia elkarlanean jardungo dira, sinatu beharreko hitzarmena sinatuta, tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztietan.

Elkarlan edo lankidetza printzipio hori Arabako Foru Aldundiaren eta aipatutako foru arauaren III. tituluan adierazitako erakundeen (udalaren gainetik dauden erakundeak) arteko harremanetan ere aplikatuko da, zeren eta foru arau horren 55. artikuluaren 3. atalean adierazitakoari jarraituz, II. tituluak xedatutakoa aplikatu behar zaie.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak eta Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetzak lankidetza hitzarmena izenpetuko dute, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketaren ardura duen erakundearen bidez, aipatutako partzuergoaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean kobratzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.7) artikuluan xedatutakoa kontuan hartu da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketaren ardura duen erakundearen bidez, Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetzaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean kobratzeko hitzarmena izenpetzea, zeina erabaki honen eranskinean ageri den.

Bigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematea aurreko puntuan aipatzen den hitzarmena eta hitzarmen hori betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 2a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

5584

**ACUERDO 492/2012, del Consejo de Diputados de 2 de octubre, que aprueba suscribir un Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad Encargada de la recaudación ejecutiva de esta Diputación Foral de los créditos y derechos correspondientes al Consorcio de Aguas de la Llanada-Sierra Elguea-Lautada-Elgea mendizerrako Urkidetza.**

El artículo 8, párrafo primero, de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, establece que las Entidades Municipales y la Diputación Foral colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos.

Este principio de colaboración, resulta también aplicable a las relaciones entre la Diputación Foral de Álava y las Entidades Supramunicipales descritas en el Título III de la citada Norma Foral, dado que, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 55 de la misma, les será de aplicación lo dispuesto en el Título II.

En base a lo anterior, la Diputación Foral de Álava y el Consorcio de Aguas de la Llanada-Sierra Elguea-Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetza, desean suscribir un Convenio de colaboración, para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos del citado Consorcio.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 8.7), de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero. Aprobar la suscripción con el Consorcio de Aguas de la Llanada-Sierra Elguea-Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetza, del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes al citado Consorcio, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo. Autorizar al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para la suscripción del Convenio a que se refiere el apartado anterior, así como de cuantos documentos sean necesarios para su ejecución.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2012.– Diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.